



AZTERKETARAKO ARGIBIDEAK:

EZAUGARRI OROKORRAK:

Azterketak hiru galdera ditu. Lehenengo galderan, testu filosofiko baten ulermena landuko da. Bigarren galderan, ikasleek disertazio filosofiko bat idatzi beharko dute. Hirugarren galderan, auzi teorikoei erantzun beharko diete.

1.- TESTU-ULERMENA.

Ikasleek A eta B aukeren artean hautatu beharko dute eta dagokion pasartea laburtu, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz. Galdera honek puntu bat balioko du eta oinarritzko jakintzen bloke bati buruzkoa izango da, hau da, A, B edo C blokeari buruzkoa.

2.- DISERTAZIOA.

Ikasleek planteatzen zaien gai bati buruzko disertazio bat idatzi beharko dute. Idatzia testuinguru historikoan kokatzeko, tesi bat emango zaie eta galdera bat edo bi proposatu. Ikasleek tesiaren aldeko eta kontrako argudioak eman beharko dituzte, historian zehar izan diren ikuspegi ezberdinak erabiliz eta euren lana borobildu beharko dute ondorio eta iritzi pertsonal batekin. Galdera honek lau puntu balioko du, eta oinarritzko jakintzen bloke bati buruzkoa izango da, hau da, A, B edo C blokeari buruzkoa.

3.- FILOSOFIAREN HISTORIA BERRIKUSTEN.

Ikasleek proposatzen zaizkien lau galderetatik BI garatu beharko dituzte. Galdera honek bost puntu balioko du (bi puntu eta erdi galdera bakoitzak) eta oinarritzko jakintzen bloke bati buruzkoa izango da, hau da, A, B edo C blokeari buruzkoa.

OHARRAK:

Blokeak Curriculumean agertzen diren hauek dira:

A. Grezian filosofia sortu zenetik Antzinaroaren amaierara.

B. Erdi Arotik Europako Modernitatera.

C. Modernitatetik postmodernitatera.

Azterketan hiru bloke horiei buruz galdetuko da, eta ez bloke bakar bati buruz. Galdera bakoitza bloke bati egokituko zaio. Lehenengo galderari eta hirugarren galderari dagokienez —aukerak eskainiko dituzten horiei dagokienez, hain zuzen ere—, galdera bakoitza bloke batekin lotuko da, eta esparru historiko eta teoriko horren barne eskainiko dira aukerak.

ZUZENTASUN ORTOGRAFIKOA:

Akats ortografiko bakoitza 0,1 punturekin zigortuko da, gehienez puntu bat arte.

Ez ahaztu azterketa-orri guztietan kodea jartzea



1. TESTU-ULERMENA: Hautatu A edo B aukera eta laburtu pasartea, testuko ideiak eta ideien arteko loturak errespetatuz (1 puntu).

A AUKERA

“Ilustrazioaren –hau da, gizakiak beren erruzko adingabetasunetik irtetearen-ardatz nagusia erlijio-arazoetan kokatu dut gehienbat: gure gobernariak ez dutelako interesik, arteei eta zientziei dagokienez, mendekoen gaineko tutoregoa inposatzeko; gainera, hura delako tutoregorik kaltegarriena, guztien artean duingabeena. Baina ilustrazioaren alde dagoen estatuburuaren pentsakera harantzagoa doa oraindik, eta honako hau aitortzen du: legegintzari dagokionez ere arriskurik ez dagoela, mendekoei arrazoimenaz publikoki baliatzeko aukera ematen bazaie, eta ilustrazioaren hobekuntzari buruz dituzten ideiak, bai eta dagoenaren kritika egia, munduari publikoki aukezten badiote”.

Kant. “Zer da Ilustrazioa?” galderari erantzuna.

B AUKERA

“Baina zenbait gizaki konbentzitura dago Jainkoa ezagutzea, eta baita euren arima zer den ezagutzea ere, zaila dela, eta honen arrazoia da gizakiok ez dutela sekula euren adimena gai sentigarrietatik altxatzen, eta ez dutela ezer bururatzen irudikatuz ez bada –hori gai materialez pentsatzeko modu bat delarik-, eta irudikagarria ez den guztiari ulertezina deritzote. Hori nahikoa nabarmena egiten da filosofoek eskoletan arautzat duten honako baieztapen honetan: hots, ezer ez dagoela ulermenaren aurretik sentimenetan egon ez dena; eta, hala ere, egia da sentimenetan ez direla sekula egon ez Jainkoaren, ez arimaren ideiak”.

Descartes. *Metodoaren diskurtsoa* IV.

2. DISERTAZIOA: Ondoko tesitik abiatuta, eman itzazu tesiaren aldeko eta kontrako argudioak eta biribildu zure idazlana ondorio batekin (200-300 hitz. 4 puntu):

Susmoaren filosofoek hainbat esparrutatik ekin zioten, baina beti modu kritikoan, Jainkoaren ideiak mendebaldeko kulturen izan zuen eraginari. Marxen hitzetan “erlijioa herriaren opioa da”. Zertarako balio dute erlijioek? Erlijioek lehen betetzen zuten lekua beste zerbaitek ordezkatu al du?

Tesia: Garai batean erlijioak betetzen zuten lekua gaur beste zerbaitek betetzen du.

3. Hurrengo galderetatik aukeratu bi, eta garatu bakoitza 250 hitzetan (2,5+2,5 puntu).

-Alienazio ekonomikoa Marxen arabera.

-Apolineoa eta dionisiakoa Nietzscheren pentsamenduan.

-Simone de Beauvoir. Zer da emakumea izatea? “Emakumearen” kategoriaren problematizazioa.

-Hannah Arendt: Totalitarismoaren jatorria, gaitz absolutua.